

Altzürükü

Aurkibidea

Udalerria: Altzürükü

Sarrera



Arbaila eskualdean dago eta Zuberoan kokatua dagoen arren, Nafarroa Behereko mugan dago. Altzürüküko altxor nagusienetarikoa bat bere ondare geologikoa da, bere eremu karstikoa hain zuzen ere. Oraindik esploratu gabe dauden leize eta kobazulo asko daude. Udalerriko ekonomia laborantzan dago oinarrituta (abelazkuntza, belardiak...).

Argazkia: Wikimedia, [Utolotu](#)

- **Biztanleak:** 252
- **Euskaldunak:** %58,27

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **1**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **1**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino

Hizlariak

Marianne Biskaisake (1913)

Marianne Biskaisake (sortzez Eppherre) Altzürükün jaio zen 1913an. Gurasoak ere bertakoak zituen. [Marianne Campané](#)-rekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Marianne Campané (1918)

Marianne Campané (sortzez Aitcin) Altzürükün jaio zen 1918an. Gurasoak ere bertakoak zituen. [Marianne Biskaisake](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Kattalina Etchart (1928)

Kattalina Jaragoyhen, Etchart ezkonduz gero, Lüküzea etxean jaio zen. Ama, Xexili Osquiguil, Bordalen sortu zen (eta Altzürükün hazi); aita Jakes Jaragoyhen zen, Garaibi Jagohenekoa. Anaia bat bazuen Kattalinak, Marti, hura baino urte bat gazteago zena. Laborariak ziren gurasoak, eta Kattalina bera ere laborantzan ari izan da lanean, bere senarrarekin. Elgarrekin 12 haur ukan zituzten. Kattalinaren aitak Lehen Mundu Gerlan hartu zuen parte, bere lau anaiekin batean; han bat hil zen, eta beste guziak kolpatuak itzuli ziren. Kattalinaren aita besoan kolpatu zen. Kattalinak Bigarren Mundu Gerlako denbora ere aipatzen du, Alemanekilako harreman zailak. Etxean gurasoekin lanean ari behar zuenez, askotan eskola huts egiten zuen, baina kateximara beti zihoan. Bai eskolan bai kateximan gertatzen zitzairen zigortuak izatea, eta hori aipatzen du. Lamina eta belagile istorioak ere kondatzen ditu.



Niko Etxart (1953)



Niko Etxart, 1953an Altzürükün jaiotako euskal abeslaria da. Haurtzaroa Parisen bizi eta egoera, 21 urterekin Zuberoara itzuli zen. Dominika Etxart herri kantariaren semea da. Nahiz eta Parisen bizi, etxean euskara jaso zuen eta euskal kulturaren murgilduta zegoen, Parisko Euskal Etxearen bitartez. 1972an, *Tinka* taldea sortu zuen, beste bi lagunekin batera. 1974ean Euskal Herrira itzuli zen eta rock musika euskaraz sortzen hasi zen. Geroztik eta gaur egunera arte, hainbat bakarkako zein taldekako diska atera ditu, kolaborazio lanetan ere ibili da eta kontzertuak ematen ditu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com